

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Mendi publikoen kontserbazioaren aldeko ekintzak babesteko aparteko eta unean uneko dirulaguntzen deialdia eta oinarriak, 2018ko uztailan izandako tornadoaren ondorioz

Aguraingo Udaleko tokiko gobernu batzarrak, 2019ko martxoaren 25eko bilkuran, mendi publikoen kontserbazioaren aldeko ekintzak babesteko aparteko eta unean uneko dirulaguntzen deialdia eta oinarriak onetsi zituen, 2018ko uztailan izandako tornadoaren ondorioz.

2018ko uztailan Entziako Partzuergoan izandako tornadoak zuhaitzetan eragindako kalte larriak direla-eta, fenomeno horretatik sortutako egurra tratatzeko lanak kontratatu dira, ahal den neurrian mendi publikoetako baso masa eta ingurune guztia babesteko.

Entziako Partzuergoak erabaki zuen tornadoaren ondorioz sortutako egurraren zati bat partzuergoko bizilagunek aprobetxatuko zutela. Beraz, egur sortak markatu ziren partzuergoko bizilagunei esleitzeko, eta 150 euroan finkatu zen sortaren prezioa. Era berean, sortak ateratzean istripurik gerta ez zedin eta zerratzean are kalte handiagorik ez eragiteko, zuhaitzak bidean moztea erabaki zen, eta beste 150 euroan finkatu zen prezioa sorta bakoitzeko.

Dirulaguntzen deialdi honen bidez, Aguraingo Udalak herritarrak ohartarazi nahi ditu mendi publikoetako baso masa babesteak duen garrantziaz, eta energia berriztagarrien erabilera sustatu nahi du.

Oinarriak

Lehenengoa.- Deialdiaren xedea

Aguraingo Udala barne hartzen duen Entziako Partzuergoan 2018ko uztailan izandako tornadoagatik seinalatutako egur sortak mozteak eta bidera ateratzeak dakartzan gastuak diruz laguntzea.

Bigarrena.- Onuradunak

Entziako Partzuergokoak diren eta Agurainen erroldatuta dauden bizilagunak.

Hirugarrena.- Diruz lagundu daitezkeen programak

2018ko uztailan Entziako partzuergoan izandako tornadoagatik sortutako eta Entziako Partzuergoak seinalatutako egur sortak moztea.

Laugarrena.- Dirulaguntzen zenbatekoa

Agurainen erroldatuta dagoen Entziako partzuergoko bizilagun bakoitzak jaso dezakeen dirulaguntzaren zenbatekoa egurra mozteak eta bidera ateratzeak eragindako kostuaren arabera izango da. Gehienez 150 euro emango dira esleitutako egur sorta bakoitzeko.

Dirulaguntzen guztizko zenbatekoa deialdi honetan esleitutako aurrekontu mugen arabera izango da: 6.500 euro esleitu dira guztira, 414.480.000 aurrekontu partidaren kontura ("Entziako Partzuergokoak diren eta Agurainen erroldatuta dauden bizilagunentzako transferentziak").

Bosgarrena.- Eskaerak, erantsi beharreko agiriak eta aurkezpena

Eskaerak Aguraingo Udaleko bulegoetan eskura daitezkeen inprimaki formalizatuaren bidez egingo dira.

Inprimaki horrekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

- a) Bankuko egiaztagiria, zeinak frogatzen baitu 2018ko uztailean Entziako Partzuergoan izandako tornadoagatik esleitutako egur sorta ateratzeko partzuergo horri egindako ordainketa.
- b) Errola ziurtagiria ofizioz egiaztatuko du Aguraingo Udalak.
- c) Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean izatea.

Eskaerak Aguraingo Udaleko erregistroan aurkeztuko dira, edo bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatutako moduan, hurrengo klausulan ezarritako epeen barruan.

Eskaerak ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Aguraingo Udalak interesdunei jakinaraziko die hamar eguneko epea dutela akatsa zuzentzeko edo behar diren agiriak aurkezteko. Hori egin ezean, eskaera artxibatu egingo da eta interesdunak eskaerari uko egin diola iritziko da.

Seigarrena.- Epea

Interesdunek hilabeteko epea izango dute eskaerak eta bosgarren oinarrian aipatzen diren agiriak aurkezteko, oinarri hauek eta deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik.

Zazpigarrena.- Dirulaguntzak emateko baldintzak

Dirulaguntzak emateko eta horien zenbatekoa zehazteko orduan baldintza hauek bete behar dira, laugarren oinarrian ezarritako mugei kalterik egin gabe:

* Entziako Partzuergoak interesdunari egur sorta bat esleitu izana, 2018ko uztailean Entziako Partzuergoan izandako tornadoaren ondorioz.

* Agurainen erroladatuta egotea.

* Egur sorta hori atera ahal izateko, Entziako Partzuergoari 300 euro ordaindu izana.

* Entziako Partzuergoaren ziurtagiria, zeinak frogatzen baitu egur sortaren esleipendunak egur hori atera duela Entziako Partzuergoak ezarritako baldintzetan.

* Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean izatea.

Zortzigarrena.- Dirulaguntzaren muga

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du gainditu Entziako Partzuergoari ordaindutako egur sortaren kostua, dirulaguntza hori bakarrik hartuta edo beste erakunde batzuen dirulaguntzekin batera.

Onartutako dirulaguntza berriro aztertu ahalko da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakin ondoren. Horrelakoetan, gastuen eta diru sarreraren arteko likidazioa egin eta hortik ateratzen den emaitza defizitarioa izango da dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa.

Bederatzigarrena.- Eskaerak aztertu eta ebaztea

Dirulaguntzen azterketa eta, hala badagokio, emakida edo uko egitea, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero egingo dira.

Aguraingo Udalak, egoki jotzen dituen kasuetan, aurkeztutako agirien inguruko datuak eta azalpenak eskatu ahal izango ditu; espedientea atzeratu, eta are artxibatu egin ahal izango da, datu eta azalpen horiek ez badira bideratzen Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen ezartzen diren epeetan, eta dagokion eskaerari aplikagarria izango zaio deialdiaren bosgarren oinarriaren azken paragrafoa.

Eskaera bakoitzari dagozkion izapide guztiak egin ondoren, dagokion zerbitzu teknikoak txostena egingo du eta ingurumen zinegotziari bidaliko dio hamar eguneko epean –hura baita txostena aurkezteko, tratatzeko eta ebazpen proposamena egiteko instrukzio organoa-. Zinegotziak tokiko gobernu batzarrari aurkeztuko dio proposamena, ebazpena emateko. Ebazpen horrek administrazio bidea agortuko du.

Tokiko gobernu batzarra ados egonez gero, dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, dagokion jarduera eta dirulaguntzaren baldintzak, jarduera burutzeko epea eta adierazitako epean ez burutzearen ondorioak adierazi beharko dira erabaki horretan. Ez da beharrezkoa izango dirurik ematea aurrerapen modura edo konturako sarrera modura.

Hilabeteko epean hartuko da erabakia, eskaerak aurkezteko epemugatik hasita. Epe hori igarotakoan erabakirik hartu ez bada, dirulaguntza jasotzeko eskaera gaitzetsi dela ulertuko da.

Hamargarrena.- Onuradunek aurkeztu beharreko agiriak, epea eta ez betetzearen ondorioak

Entziako Partzuergoak diren eta Agurainen errolatuta dauden bizilagunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte udaletxeko erregistroan:

- * Egur sortagatik Entziako Partzuergoari egindako ordainketaren ziurtagiria.
- * Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean izatearen ziurtagiriak.
- * Entziako Partzuergoaren ziurtagiria, zeinak frogatzen baitu esleitutako egur sorta atera dela.
- * Egur sortarekin lotutako bestelako diru sarrera edo dirulaguntzarik jaso ez izanaren zinpeko deklarazioa.

Aipatutako agiri horiek guztiak 2019ko urriaren 31 baino lehenago aurkeztu beharko dira. Epe hori igarotakoan agiri horiek aurkeztu ez badira, ordainketa kredituak ezeztatuko dira, eta, egoki bada, konturako sarrera modura jasotako diru kopurua bueltatzeko espedientea irekiko da.

Hamaikagarrena.- Ebazpena jakinaraztea

Eskatzaileei idatzizko jakinarazpen baten bidez emango zaie dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren berri. Eskatzaileak kontrakorik ez badio, ebazpenean adierazitakoa onartu duela ulertuko da.

Hamabigarrena.- Dirulaguntzak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, dirulaguntza emateko erabakia aldatu ahal izango da eta dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli beharko da, eta gauza bera gertatuko da beste erakunde publiko edo pribatu batek xede bererako laguntza edo dirulaguntza bat emanez gero ere.

Hamahirugarrena.- Bateriaezintasunak

Ekimen eta programa hauetarako emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira jaso ditzaketen bestelako laguntza ekonomiko edo dirulaguntzekin. Dirulaguntza hori eskatu izanaren berri eman beharko zaio Aguraingo Udalari, zein erakunderi eskatu zaion eta dirulaguntza zenbatekoa den adieraziz.

Hamalagarrena.- Dirulaguntza galtzea

Entziako Partzuergoko bizilagun onuradunek dirulaguntza galdu ahalko dute, deialdi honetan adierazitako baldintzak betetzen ez badituzte.

Hamabosgarrena.- Dirulaguntza itzultzea

Dirulaguntza jasotzen den unetik aurrera, dirulaguntza itzultzeko eta berandutze interesak ordaintzeko eskatu ahalko da.

Itzuli beharreko diru zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarrera gisa hartuko dira, eta, itzulketa ez bada egiten xede horretarako ezarriko den epearen barruan, premiamendu bidea erabili ahalko da.

Aguraingo Udalaren aldeko txeke izendunaren bidez itzuliko da dirua, edo eskudirutan ordainduko da Udalaren diruzaintzan.

Hamaseigarrena.- Garapena

Aguraingo Udaleko tokiko gobernu batzarraren erabakiz, deialdi hau garatzeko egokitzat jotzen diren ebazpenak hartuko dira. Datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatu ahalko da. Horretarako, Entziako Partzuergokoak diren eta Agurainen erroldatuta dauden bizilagunek garatzen dituzten programen edo ekimenen inguruko datuak eta agiriak emateko konpromisoa hartuko dute, Aguraingo Udalak eskatuz gero.

Hamazazpigarrena.- Publizitatea

Deialdi hau ALHAOren eta Udalaren web orriaren bidez zabalduko da.

Hemezortzigarrena.- Interpretazioa

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortuko balitz, Aguraingo Udalaren dagokion zerbitzu teknikoak ebatziko luke.

Hemeretzigarrena.- Errekurtsoak

Honako deialdi honen aurka zein honen ondorioz sortutako administrazio egintza orenen aurka egin daiteke, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak ezarritako kasuetan eta eran.

Hogeigarrena.- Erantzukizunak bere gain hartzea

Eskatzaileak bere gain hartuko du diruz lagundutako programa edo ekimena gauzatzetik erator daitekeen erantzukizuna, eta baita indarrean dagoen legerian programa edo ekimen hori gauzatzeko behar diren baimenak eskatzeko ardura ere.

Hogeita batgarrena.- Azken klausula

Oinarri hauetan adierazita ez dagoena honako hauen arabera arautuko da: Toki Araubidearen Arautegia; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 38/2003 Legea; dirulaguntzei buruzko araudi orokorra eta aplikatu daitekeen gainerako araudia.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Agurain, 2019ko apirilaren 4a

Alkatea

IÑAKI BERAZA ZUFIAUR